

< > ^ > v < ^
< > ^ > v < ^
< > ^ > v < ^
< RESIDENCIAS ^
< EGOITZAK ^
< > ^ > v < ^
< > ^ > v < ^
< > ^ > v < ^

ARMENIA-BOLIVIA
NAZIOARTEKO
EGOITZAK

2019

II
Huarte

Uharte Zentroak nazioartekoa bi egoitza eskaintzen ditu, bertako bi artistak, espazio bakoitzari dagokion testuinguru eta printzipioetan oinarritutako bi proiektu garatzeko.

- mARTadero espazioa, Cochabamba, Bolivia
- Nest, Yerevan, Armenia

MARTADERO

NADA elkarteak kudeatuta, garapen kulturalerako proiektu integrala da mARTadero, Cochabambako antzinako hiltegian kokatzen da. Interesgune ditu, berrikuntza, esperientazioa, zorroztasun kontzeptuala, integrazioa, jakintzen eta esperientzien trukaketa eta kulturartekotasuna. <<Prana>> izeneko artisten egoitza programa du, ekipatutako espazioa eta ostalua eskaintzen dielarik artistei.

martadero.org/project/residencias-artisticas-prana

NEST

ICA-Yerevan arte garaikideko proiektuak diseinatzeko eta ekoizteko zentro irekia da. Hainbat proiektu mota garatu eta ezartzen ditu, esaterako, erakusketak, artearen artxiboarako edo hedapenerako, komisariotza praktiken inguruko programak eta ikerketak, artearen teoria eta hezkuntza... Pertsonen eta ideia / kontzeptuen sare ireki baten gisa egituratua dago Nest eta Armeniako arte garaikidearen eszenan aritzeko eta ulertzen laguntzeko baliabide, instalazio eta tresnak eskaintzen ditu Eskola, Galeria, Egoitza eta Ikerketa Laborategietako eskaintzarekin. Artistentzako egoitza, artista, idazle, kuradore, kultur kudeatzaile, akademiko eta beste profesionalei zuzendua dago Armeniako sormen-esparruan murgiltzeko proiektua garatzen ari diren bitartean.

www.nestresidency.am/en



NORI ZUZENDUA

Lekuko artistei zuzendua (Nafarroan jaioak edo bertan bizi direnak) eta artearen edozein alorretatik datozenak (arte biziak, ikusizkoak, arkitektura eta hirigintza, ikus-entzunezkoak, musika, teoria, etab.)

ZER ESKAINTZEN DA

- Gehienez ere 700€ ekoizpenerako
- 1000€ (zergak baren) dirusaria eta dieta kontzeptuetarako
- Iruñetik Cochabambara edo Yerevanera bidaia
- Nest edo Martaderoko instalazioetan alojamendua
- Oinarrizko bidaia aseguru mediku estaldurarekin atzerriko egonaldietarako
- Nest edo Martaderoko instalazioetan lan egiteko espazioa
- Espazioko lantaldearen jarraipena eta aholkularitza
- NEST edo mARTaderon, egindako lanaren aurkezpen publikoa lekuko espazioko lantaldearekin erabakita.
- Uharte Zentroan NEST edo mARTaderon egindako lanaren aurkezpen publikoa espazioko lantaldearekin erabakita.



DATAK

- Deialdiaren itxiera: apirilak 17
- Hautapenaren jakinarazpena deialdia itxi eta gehienez ere hilabeteren buruan jakinaraziko da.
- Egoitzaren iraupena bost astekoa da
- Martaderon irailaren 1etik, urriaren 5era.
- Nesten, irailaren 23tik, urriaren 27ra.

BALORAZIO IRIZPIDEAK

Proiektuen hautaketa Uharteko Arte Garaikideko Zentroaren eta lekuko zentroaren (Nest/Martadero) artean egingo da.

- Proiektuaren kalitate artistikoa
- Deialdiaren lan ildoekin proposamenak eta gaiak duen interesa.
- Espazio bakoitzaren testuinguruarekin proiektuak duen uztardura.
- Proiektua denboran eta baliabide ekonomikoen aldetik egingarria izatea
- Ikerketa zizen zen duen pertsonaren esperientzia/kualifikazioa

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Izen-ematea www.centrohuarte.es/eu webgunean egin behar da. Formularioan PDF dokumentu bakarrean atxiki beharko da (izena_abizena.pdf gehienez 5 mb) honakoak bilduko dituen txostena:

- Proiektuaren ideia nagusia edo laburpena
- Proiektuak oinarri dituen ikerketa lerroak
- Aurretik egindako lanen irudiak eta/edo egiten den proposamena ulertzen lagunduko duten irudiak (bideoak badira estekak jarri)
- Kronograma edo egitarauaren datak
- Egoitzan garatzeko eta lekuko testuingurua kontua izango duen proposamena
- Ekoizpen gastuen aurreikuspena
- Biografia edo curriculuma

Aurretik eskatutako dokumentazio osoa aurkezten ez duten proiektuak ez dira aintzat hartuko

PARTE-HARTZE BALDINTZAK

Parte-hartzaileek, deialdira aurkezte hutsarekin, oinarri hauek onartzen dituzte:

- Egoitzak irauten duen bitartean, egoiliarrak bere lanerako gunea Nest/Martadero espazioan ezarri beharko du.
- Egoiliarrak bere proiektuaren memoria aurkeztu beharko du egoitzaren amaieran.
- Egoitza argitalpen edo obra baten ekoizpena baldin bada, Uharte Zentroa kredituetan agertu beharko du eta aurretik jakinarazi beharko zaigu.
- Hautatutako lanak egileen jabetzakoak izango dira. Uharte Zentroak Online edo euskarri fisikoan programaren zati bat edo osoa argitaratu ahal izango du egiletza aitortuz. Uharte Zentroak deialdi honen bidez sortuko den dokumentazio guztia artxibatuko du.



n&st

|| Huarte

ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORÁNEO

Calvario, 2. 31620
Uharteko Huarte | Nafarroa Navarra
t. 948 361 457 | centrohuarte.es

Finantziatua / Financiado por

